

2006-2010

Hizkuntza-politika indartu eta garatzeko hamar proposamen

Euskararen Gizarte Erakundeen
Kontseilua

2005eko abenduan



EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN
KONTSEILUA

Sarrera

Azken mende-laurden honetan Euskal Herrian abian jarri diren hizkuntza-politiken eraginez eta herri ekimenari esker egin diren urratsak ukaezinak badira ere, oraindik urrun aurkitzen gara euskaldunok nahi dugun normalizaziotik, hau da, erosotasunez geure bizitza euskaraz egunero egitetik. Gure hizkuntzaren normalizazio prozesuak une erabakigarriak bizi ditu azken bolada honetan, faktore batzuek moteltze kezkarria erakusten baitute. Horregatik, ezinbestekoa da orain arte eman ditugunak baino pauso sendoagoak ematea eta euskararen ezagutza eta erabilera gizarte-eremu guztietara hedatzeko neurri eraginkorrak hartzea. Hori ez egiteak euskarari dagozkion eremuak berreskuratzeko erritmoa moteldu ez ezik lortutakoak ahultzea eta arriskuan jartzea ekar lezake.

Egoera hau gainditu egin behar da, gaur egungo baldintzek eragotzi egiten baitute berez, zaila, luzea baina ezinbestekoa den euskararen normalizazioaren helburua lortzea. Beraz, Euskararen Gizarte Erakundeak Kontseiluak uste du ondoren azalduko diren hamar proposamenok aintzat hartu eta egikaritzea behar-beharrezkoa dela datozen urteotan Euskal Herrian euskararen normalizaziorantz pauso sendoak emango baditugu.

Hamar Proposamen

1. Ereduak gainditu

Duela ia mende-laurden bat indarrean ezarri ziren eredu sistema desberdinek bide luzea egin dute, eta hasiera hartako egoerari aurre egiteko baliagarriak gertatu baziren ere, hogeita bost urte geroago askiezak direla eta gainditu egin behar direla gizartearen gehiengoak gero eta garbiago ikusi du. Eraitzen ebaluaketak nabarmen erakutsi du A eta B ereduak desegokiak direla eta D eredu bera ere zenbait kasutan egoki euskalduntzeko askieza gertatzen dela. Gainera, gaur egun oraindik ere, Euskal Herriko zonalde zabaletan legez ezarritako debekuek eragotzi egiten diete euskal herritarrei euskaraz ikasteko aukera hizkuntza ofiziala ez den lurraldeetan. Bi errealitate horien ondorioz, belaunaldi berriak ez dira osorik euskalduntzen ari.

Horregatik, hezkuntza-sistemaren barruko ikasle guztiak hamasei urte betetzean euskararen jabe izan daitezten ikasteredu egoki bat Euskal Herri osoan ezartzea da une honetatik hasi eta datozen urteetarako hizkuntza-politika egokiaren oinarritzko zutabea. Horretarako, beharrezko birmoldaketak egin eta behar besteko baliabideak eskaini beharko dira. Esan gabe doa euskaraz ikastea eragozten duen corpus juridikoa aldatu beharra dagoela oinarritzko hizkuntza-eskubidea den euskara ikastekoa bermatzeko. Zentzu horretan honako premiazko neurri hauek hartu beharko dira:

- Hezkuntza Sistemak belaunaldi berriak oso-osorik euskalduntzea lortu behar du, gure artean gero eta ugariagoak diren etorkinen seme-alabak barne direla.
- Ikastereduak aztertu bitartean haur berri guztiak D ereduan matrikulatzea eta gainerakoak eredu horretarantz bideratu behar dira pixkanaka.
- Corpusean beharrezko aldaketak egin behar dira euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko, bereziki, ofizialtasuna jasoz Euskal Herri osorako.
- Era berean, Euskal Herri osorako baliagarria izango den Hezkuntza Legea sortu beharra dago herritarren euskalduntzea bermatzeko.
- Bestalde, euskaraz egindako ikerketa eta euskarari buruzkoa lehenestea ere ezinbestekoa izango da normalizazioaren bidetik aurrera egin nahi bada, orain arte erdararen alde nagusitu den joera orekatzeko.

2. Lehendakaritzaordetza sortu

Hizkuntza-politikarentzat lehendakariordetza sortzea Euskaingintzak aspaldi egin zuen eskaria da. Euskararen normalizazioak zeharkako izaera du eta ondorioz, Gobernuak izaera hori garatzeko modurik egokiena den lehendakariordetza sortzea da bidea. Datozen garai berrietan euskarari behar duen besteko bultzada eman nahi bazaio, guztiz komenigarria izango da Lehendakariordetza sortzea eta baliabide ekonomikoz hornitzea, euskararen normalizazioa salbuespenik gabe bilatzeko. Izan ere gaur egunean Sailordetza gisa Kultura Sailean edo Nafarroaren kasuan bezala, Hezkuntza Sailaren barruko Zuzendaritza barruan egotea ez da kokagunerik egokiena bere eginbeharrak betetzeko eta ez du behar bezala irudikatzen euskarak izan beharko lukeen zentralitatea ere. Honako neurri hau hartu beharra dago:

- Lehendakariordetza sortzea euskararen normalizazioa gobernuen sail guztietan egoki garatzeko.

3. Administrazioa euskaldundu

Administrazioaren euskalduntzea erabakigarria da euskararen normalizaziorako eta hizkuntza-eskubideen bermerako, eta hori esatean bera osatzen duten Sail guztiak hartu behar dira kontuan, inolako salbuespenik gabe. Zoritxarrez, gaur gaurkoz badirudi Gobernuetako Sail jakin batzuen bizkar bakarrik dagoela euskararen normalizazioa eta beste zenbait salbuetsita daudela. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da honako neurri hauek hartzea eraginkortasunez euskalduntze hori burutzeko:

- Administrazioaren euskalduntze-data finkatzea. Gehienez 12 urte (3 urteko 4 alditan).
- Euskaldunek eta euskaldunduek euskaraz lan egitea ahalbidetzea eta horretarako baliabideak izatea.
- Kontratazio berri guztietan lanpostuari dagokion euskararen ezagutza ezinbestekoa izatea.
- Arduradun politikoek euskalduntzeko 3 urteko muga izatea.
- Egiten den Plangintza bakoitzaren ebaluazioa gardena eta publikoa izatea.
- Administrazioen hornitzaile diren elkarte eta enpresei normalizazio-planak eskatzea.
- Dirulaguntzak jasotzen dituzten enpresa eta gizarte-eragileei normalizazio-planak eskatzea.

- Azpikontratazioetan euskarazko zerbitzua bermatzea.
- Administrazioa euskaldundu bitartean euskaraz funtzionatuko duten zirkuituak sortzea.
- Sortzen diren egitura berri guztietan (administrazio atalak, erakunde publikoak, esaterako enplegu bulegoak...) hasieratik euskara lan hizkuntza izatea.

4. Lan mundua euskaldundu

Lan-mundua euskalduntzeko erabaki sendoa hartu behar da eta horretarako ondoren aipatzen diren puntuak garatzea gutxienezko urrats gisa proposatzen dira. Alor honetan orain arte egin den eta oraindik egiten den ahalegina oso murrizta da eta hezkuntzaz kanpoko gizartearen egoerak nabarmen baldintzatzen du haren baitan euskalduntzen ari diren haur eta gazteen aurrerabidea. Gaurko egoera aldatu ezik etorkizuneko belaunaldietan egiten den inbertsioa oso murrizturik aurkitzen da lan-jardueretan euskara erabiltzeko aukerak oso mugatuak gertatzen direlako. Behar-beharrezkoa da lan-munduan eskolatik datozen gazte eleanitzei harrera egiteko egiturak pixkanaka prestatzea etorkizunean normaltasunez hizkuntza desberdinak erabil ditzaten. Hari horretatik honako neurri hauek:

- Publizitate- eta etiketa-lege eraginkorrak.
- Lan Mundua euskalduntzeko Fundazioa sortzea, lan munduko eragileen, administrazioen eta euskalgintzaren parte hartzeaz.
- Q eta ISO kalitate-agirietan euskarazko zerbitzua eskaintzea erabakigarria izatea ziurtagiriak eskuratzeko.
- Enpresetan normalizazio-planak abiatzeko erraztasuna ematea.
- Gobernuetako Lan Sailek eskaintzen dituzten zerbitzuak euskalduntzea.
- Lan mundua zinez euskaldundu ahal izateko, atal guztietan hizkuntza irizpideak ezarri edo baloratzea: diru laguntzak ematerakoan (enpresa berriak, industrialdeak, informatika, web guneak ...), enpresa berriak sortzen laguntzerakoan, berrikuntza prozesuak laguntzen dituztenean, etab.
- Enpresa berriak sortzen laguntzen duten erakundeetan eragin behar da eta sorretatik enpresak euskaldunak izan daitezen ahaleginak egin behar dira: kooperatibak, merkataritza ganberak, enplegua sustatzeko erakundeak...

- Gizarte Ekonomian euskararen erabilera handitzeko laguntzak eskaintzea.
- Industria Sailak homologatzen dituen eta zerbitzu publikoa eskaintzen duten enpresei (igogailuak, ibilgailuen azterketa teknikoa, prebentzioa ...) eta bestelako kontzesioei (farmaziak, notaritzak...) hizkuntza-irizpideak ezartzea.

5. Berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa

Corpus juridikoaren gailurrean kokatzen diren legeek euskara berezkoa, lehentasunezkoa eta ezagutu beharrekoa izendatzea beharrezkoa da euskararen normalizazioa lortzeko aurrerabidean: berezkoak esan nahi du lurralde honetan bakarrik dagoena dela antzinako garaietatik eta hemen galtzen bada mundu osoarentzat galduko dela, lehentasunezkoak esan nahi du diskriminazio positiboaren gai izan behar duela dagoen egoera zaila gainditzeko eta beste hizkuntzen parean lehiakide izateko eta ezagutu beharrekoak esan nahi du modu iraunkorrean bizi nahi duenak derrigor ezagutu beharko duela bertoko hizkuntza ofiziala delako. Bide hau estatuko beste hizkuntza-komunitate batzuek ere dagoeneko urratu beharrekotzat jotzen dute, eta guztiz ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen iraupenerako.

- Aipaturikoak berekin dakar lege hauek egokitzea edo sortzea:
 - Estatutuak, hizkuntzaren estatus egokia jasotzeko.
 - EAEko 82ko eta Nafarroako 86ko legeak (Euskararen eta Vascuenceren legeak), estatus horretara egokitzeko.
 - Kontsumitzailearen legea, kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzen ez dituzten enpresak isunen bidez legea betearazten laguntzeko.
 - Publizitate- eta etiketa-legea sortzea, produktuen informazio guztia euskaraz egotea bermatzeko.
 - Udal-legea, udalerrri euskaldunen jarduna babesteko.
 - Hezkuntza-legea sortzea, euskalduntzeko helburua bermatzeko.
 - Hauteskunde-legea, hautagaiei euskararen ezagutzaren kuota ezartzeko.
 - Komunikabideei euskararen kuota ezartzeko legea.

Lege horiek denak Euskal Herri mailako ikuspegiz lantzea guztiz ezinbestekoa da, hizkuntza-politika euskararen berezko lurralde osoan aplikatu behar delako.

6. Helduen euskalduntzea

Helduen euskalduntzearen laguntzak handitu behar dira doakotasunera iristeko. Haur-gazteen eta helduen artean euskalduntzeari dagokionez gertatzen ari dena aztertzen denean egoera kontraesankor bat ageri da. Alde batetik, ahaleginak egiten diren arren, gaur eguneko ikastereduen erruz milaka gazte behar bezala euskaldundu gabe gizarteratzen dira eskola-aroaren amaieran eta urte batzuk geroago gazte horiek beroriek euskara beharrezko den lanpostuak eskuratu nahi badituzte beren dirutik ordainduz ikasi behar izaten dute. Arazo berarekin topo egiten dute beren biziraupena ziurtatzea ozta-ozta lortzen duten etorkin helduek ere. Ukaezina da Administrazioak hizkuntza-eskakizunak eskatu behar dituela bere plantilletan sartu nahi dituen langileentzat, gero horiek euskalduntzen dirutzak gastatzen ibili nahi ez badu. Horrela bakarrik lortuko da epe baten barruan funtzionario euskaldunak izatea. Horregatik honako eskaera:

- Helduen euskalduntzea eta alfabetatzeari dagokion izaera estrategikoa ematea, beharrezko baliabideak eskainiz eta helduei ikasteko erraztasunak emanez, doakotasuna lortu arte.

7. Kuotak hedabideetan

Euskal Herrian diharduten komunikabide guztien, nola idatzizkoen hala elektronikoen zein ikusentzunezkoen jarduna aztertu eta gizartean gertatzen ari den aurrerabide soziolinguistikoaren pareko kuota batzuk legez ezartzea erabaki behar da. Bestela gaurko egoerak alor batzuetan neke handiz lortzen den aurrerapena beste eremu batzuetako kontra-jardunaren eraginez galgatzea baitakar.

- Euskal Herrian zabaltzen diren hedabideei egoera soziolinguistikoaren arabera kuota legez ezartzea.

8. Euskararen aurrekontua handitu

Gaurko egoeratik hizkuntza-politika atera eta bultzada indartsu bat eman nahi bazaio diru baliabideak nabarmen handitu behar dira, orain artekoa bikoizteaz edo hirukoizteaz ari gara kasuen arabera. Hori lortzeko honako hiru puntuok aintzat hartzea beharrezkoa izan daiteke:

- Normalizazio-prozesuak norbanakoei eta Gizarte Eragileei sortzen dizkien ahalegina eta inbertsio ekonomikoak arintzeko zerga kenketak ezartzea.

- Euskalgintzarentzat enpresa-kreditu finantzatuak, kreditu bigunak emateko laguntzak, enplegua sortzeko laguntzak, fondo galduko kredituak, azpiegiturak sortzeko laguntzak, teknologia berriak implementatzeko laguntzak eta abar sortzea. Era berean, euskararen sustapena Balio Erantsiaren Zergaz salbustea beharrezkoa da, hezkuntza bezala.
- Dirulaguntzak garaiz banatzeko konpromisoa hartzea, orain ohikoak diren berandutzeek sortzen dituzten zailtasun eta estuasun larriak saihesteko.

9. Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa euskaldundu

Orain arte baino ahalegin eta baliabide gehiago bideratu behar dira unibertsitateetan falta diren karrerak euskaraz ikasteko aukerak sortzeko eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskalduntzeko. Bestetik, Lanbide Heziketako praktikak euskaraz egitea ahalbidetzen duten enpresei abantaila fiskalak eskaini beharko litzaizkieke.

Hori guztia egin bitartean hezkuntzako eta gizarteko sektore jakin batzuk nabarmen diskriminatzen duen politika bat sustatzen ari da eta euskararen normalizazioa galgatzen. Hona neurriak:

- Unibertsitateen eta Lanbide Heziketaren eskaintza osorik euskaldundu behar da.
- Praktikak euskaraz ahalbidetzen dituzten enpresei abantaila fiskalak onartzea.

10. Hizkuntza-politika egokia

Hizkuntza-politika egokia abiatzea ezinbestekoa da orain arte aipatutako puntuen bidetik euskararen normalizazioa lortu nahi bada. Kontseiluaren aburuz egokitasun horren jabe den hizkuntza-politikak honelakoa izan behar du:

- Epe eta helburu zehatzak dituen hizkuntza-politika, bitartekoz hornitua, sailartekoa, gizarteko sektore guztietara iristeko modukoa, Administrazio Nagusitik Toki administrazioarainokoa, hizkuntza-eskubideak bermatu nahi dituen, Euskal Herriko eremu osoan aplikatzeko modukoa eta ikuspegi osokoa.
- Administrazio guztien arteko koordinazio organoa sortuko duena.

- EBPN (Eusara Biziberritze Plan Nagusia) eta BEAH (Bai Euskarari Akordioa Herrietan) planen arteko osagarritasuna bermatuko duena EAEn kasuan.
- Osagarritasuna ere, Kontseiluaren Bai Euskarari Ziurtagiriarekin.
- Euskalgintzako agenteekin elkarlan iraunkorra ezartzea.

Aipaturiko baldintza horiek beteko dituen politika behar da gizartean dauden baliabide mugatuak ahalik eta hoberen ustiatu eta era koordinatuan normalizazioak eskatzen duen helburuak lortzeko.

*Kontseilua
2005eko abendua*